BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

5421

EBAZPENA, 2015eko azaroaren 17koa, Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendariarena, zeinaren bidez aldez aurretiko administrazio-baimena ematen baitzaio Naturgas Energía Distribución SAUri, Gipuzkoan, Lizartzako udal-mugartean, gas natural kanalizatua banatzeko. Espediente-zenbakia: 20/24154 – CG-F-2015-10.

Espediente honi ebazpena ematerakoan, honako hauek kontuan hartu eta aipatu behar dira:

AURREKARIAK

1.– 2015eko ekainaren 30ean, Naturgas Energía Distribución SAUk aldez aurretiko baimena eskatu zuen, Lizartzako udal-mugartean gas naturala banatzeko instalaziorako.

2.– Lehiako iragarkia argitara eman zen EHAAn (2015eko irailaren 8an, 170. zenbakian), eta GAOn (2015eko irailaren 4an, 169. zenbakian); hala ere, ez da lehiarako bestelako proiekturik aurkeztu.

3.– 2015eko irailaren 8an, Repsol Butano SAk alegazioak aurkeztu zituen, eta, funtsean, eskatu zuen Naturgasek aurkeztutako eskaera ukatzeko; edo, ukatu ezean, hainbat murriztapen ezartzeko, instalazioaren erabilera publikoa ukatzeko, besteak beste, Repsol Butano SAk honako egitate hauek arrazoitu ditu ukoa eskatzeko:

– Proiektuko sareak eta Repsol Butano SAren banaketa-sareak ia % 100en egiten dute bat, PGLa banatzeko.

– Eragimen ekonomikoaren irizpideak, biltegiratze-sistemak eta banaketa-sareak ez bikoizteko.

– Gaur egun PGLa hornitzen duenari eragiten zaion kalte ekonomikoa, ez baitago denbora nahikorik inbertsioa itzultzeko.

– Ez da egokia proiektuko instalazioa onura publikoa dela deklaratzea, ez baitu ekarriko lehendiko PGL hornidurak baino abantaila gehiago.

4.– Aurkeztutako alegazioak Naturgas Energía Distribución SAUri jakinarazi zaizkio, eta berak erantzuna eman du 2015eko urriaren 28an aurkeztutako idazki baten bidez (idazkiaren edukia espedientean dago).

Ebazpen hau ondoko oinarrietan bermatzen da:

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.– Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzak du espediente hau ebazteko eskumena, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 24ko 190/2013 Dekretuan ezarritakoari jarraituz (2013ko apirilaren 24ko EHAA).

2.– Hidrokarburoen Sektoreari buruzko urriaren 7ko 34/1998 Legean ezartzen denez (1998-10-08ko BOE), gasa banatzeko sareak eraikitzeko, aldez aurretik administrazio-baimena izan beharko da.

3.– 1434/2002 Errege Dekretua, abenduaren 27koa (2002-12-31ko BOE), gas naturala garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta gas naturaleko instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituena.

4.– 107/1998 Dekretua, ekainaren 9koa (1998-06-26ko BOPV), gas kanalizatuko zerbitzu publikoaren instalazioak jarri eta baimentzeari buruzkoa.

5.– Repsol Butano SAk egindako alegazioak aztertu eta gero, ezetsi egin behar dira; izan ere, gas naturala banatzeko baimenak ez du baztertzen jarduera horretakoak ez diren beste instalazio batzuk baimentzea, PGL soltea kanalizazio bidez banatzeko sareak, hain zuzen.

6.– Ordezkaritzako zerbitzu teknikoek aztertu dutelarik aurkeztutako proiektu bakarra, kontsideratzen da ezen Naturgas Energía Distribución SAUk bete egiten dituela arlo honetarako ezarritako betekizunak eta baldintzak.

7.– Aurreko legezko arauak eta ezarri beharreko gainerako xedapen orokorrak aztertu ondoren, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldez aurretiko administrazio-baimena ematea Naturgas Energía Distribución SAUri, Gipuzkoan, Lizartzako udal-mugartean, gas naturala hornitzeko eta banatzeko instalazioak egin ditzan.

Aurkeztutako proiektua David Gistau Cosculluela bide, ubide eta portu ingeniariak sinatu du, eta proiektu horren memorian eta planoetan deskribatzen dira ezaugarri nagusiak. Hauek dira:

– Gas natural likodutuaren planta (GNL): 10 m^3-ko edukiera

– GNL plantatik konexio ardatza:

Sarea	Diametroa (mm)	Luzera (m)
PE 100 - 11	90	574

– Lizartzako herriguneko banaketa-sarea (MOP ≤ 5 bar), ezaugarri hauetakoa:

Sarea	Diametroa (mm)	Luzera (m)
PE 100 - 11	90	328
PE 100 - 11	63	996
PE 100 - 11	32	604

Bigarrena.– Administrazio-baimen honek baldintza hauek bete beharra dakar:

1.– Baimentzen den instalazioa honako izen hau duen proiektuaren arabera egin beharko da: Lizartzako herrigunean, gas naturala banatzeko sarea.

2.– Instalazioak gauzatu aurretik, proiektu zehaztua aurkeztu beharko da, banaketa-sareari eta GNLko plantari buruzkoa, eta eraginpeko erakundeentzako separatak erantsi beharko zaizkio.

3.– Instalazioek bete beharko dute, batetik, Gas-erregaiak erabili eta banatzeko arautegi teknikoan eta haren jarraibide tekniko osagarrietan xedatutakoa (uztailaren 28ko 919/2006 Errege Dekretua) eta, bestetik, egoki diren bestelako xedapen eta arau teknikoak.

4.– Naturgas Energía Distribución SAUk 7.541 euroko fidantza(k) jarriko d(it)u bi hileko epean; hala, instalazio-betebeharrei erantzungo diela bermatzeko, urriaren 7ko 34/1998 Legearen 73. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Euskal Autonomia Erkidegoko Gordailuen Kutxa Nagusian aurkeztu beharko da aipatu fidantza, eskudirutan, estatutuaren titulutan, edo banku-abaletan, uztailaren 21eko 1775/1967 Dekretuko 11. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz. Instalazioak baimendu eta horiek instalatzeko baimenean ezarritako epeetan eraiki ondoren, eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzak, instalazioak martxan jartzeko akta edo aktak formalizatu ondoren, Naturgas Energía Distribución, SAUri fidantza itzuliko zaio.

5.– Egiteko epea hiru urtekoa izango da, aldizkari ofizialetan baimena azkenekoz argitaratzen denetik hara; eta hori betetzen ez bada, indargabetu egingo da baimena.

6.– Obrak egiteko beharrezko diren udal edo probintzien eskumenpeko baimen edo lizentziak eta gainerakoenak errespetaturik, ematen da baimen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik.

7.– Instalazioetan egin beharreko azterketak, entseguak eta probak, orokorrak nahiz zatikakoak izan, indarrean dauden xedapenen arabera egin beharko dira, eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzari jakinarazi beharko zaizkio behar adinako aurrerapenaz.

8.– Instalazioak martxan jartzeko, Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan honako agiri hauek aurkeztu behar dira: obra-zuzendaritzako ziurtagiriak; proben aktak, erregistro grafikoak eta tarteko diren erakundeen baimenak jasota; bai eta as-built planoak ere, sarea non dagoen eta beste zerbitzu batzuekin non gurutzatzen den zehaztuta.

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beronen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Industriako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera, 4/1999 Legean ezarritakoa betez. Lege horren bidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatu zen, Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearena.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko azaroaren 17a.

Energiaren, Meategien eta Industria Administrazioaren zuzendaria,
AITOR PATXI OREGI BAZTARRIKA.